

2019ko ABENDUAREN 18ko OSOKO BILKURAKO AKTA.

Tokia: Berako Herriko Etxea.
Eguna: 2019-12-18.
Hasiera ordua: 19:35.
Bilkura mota: ohikoa, 1. deia.

BERTARATUAK:
EH BILDU
M. Aranzazu Zubietta Ochoteco
Estibaliz Pinacho Olaciregui
Julen Errandonea Martin
Jose Esteban Aguirre Zubietta
Josu Iratzoki Agirre
Maialen Chantre Irazoki
HERRIRAKO
German Castillo Lazcanotegui
Jose Antonio Oyarzabal Iribas
Raquel Quiroga Tapia

EZ EGOTE JUSTIFIKATUAK:
Nahuel Maximiliano Ibarburi Lompre

ALKATEA (Bilkurako buru):
Aitor Elexpuru Egaña

IDAZKARIA: Miguel Jose Belarra Tellechea,
ekintzaren akta jasotzen du.

EZTABAIDATUTAKO GAIAK (behar bezala egindako deialdiaren Gai Zerrendan sartu zirenak):

1. AZKENEKO BILKURAKO AKTAREN ONARPENA.

Alkateak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera banatu zen aurreko bilkurako aktari (2019/11/20). Inork ez du azalpenik egin eta **aho batez** onartzen da akta.

Estibaliz Pinacho Olaciregui bilerara sartu egin da.

2. UDAL PLANEKO LURZORU URBANIZAEZINEKO ARAUEN 10. ETA

ACTA DE PLENO DE 18 DE DICIEMBRE DE 2019.

Lugar: Casa Consistorial de Bera.
Día: 18-12-2019.
Hora comienzo: 19:35.
Tipo sesión: ordinaria, 1ª convocatoria.

ASISTEN:
EH BILDU
M^a Aranzazu Zubietta Ochoteco
Estibaliz Pinacho Olaciregui
Julen Errandonea Martin
José Esteban Aguirre Zubietta
Josu Iratzoki Agirre
Maialen Chantre Irazoki
HERRIRAKO
Germán Castillo Lazcanotegui
José Antonio Oyarzabal Iribas
Raquel Quiroga Tapia

AUSENCIAS JUSTIFICADAS:
Nahuel Maximiliano Ibarburi Lompre

ALCALDE (preside la sesión):
Aitor Elexpuru Egaña

SECRETARIO: Miguel José Belarra
Tellechea, levanta acta del acto.

ASUNTOS TRATADOS (incluidos en el Orden del Día de la convocatoria realizada al efecto):

1.- APROBACIÓN DE ACTA DE LA SESIÓN ANTERIOR.

Pregunta el Alcalde si alguno/a de los/las concejales/as desea hacer alguna observación al acta de la sesión anterior (20/11/2019), repartida con la convocatoria. No se ha manifestado ninguna, aprobándose el acta **por unanimidad**.

Estibaliz Pinacho Olaciregui se incorpora a la sesión.

2.- MODIFICACIÓN DE LOS ARTÍCULOS 10 Y 18 DE LAS NORMAS

18. ARTIKULUEN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA.

Alkateak gaia aurkeztu eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, honako erabaki hau hartu da:

Ikusirik:

- Udal Planeko hirigintzako antolamendu xehakatuko determinazioak aldatzeko espedientea, zehazki lurzoru urbanizaezineko Arauen 10. eta 18. artikulua, Berako Udalak sustatua.

- Nasuvinsak 2019-12-12an egindako txosten teknikoa.

- Udal Idazkaritzak 2019-12-17an egindako txosten juridikoa.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 77.3 eta 72. artikuluekin bat etorritz,

aho batez (legez eskatutako gehiengo absolutuaren quoruma), ERABAKITZEN DA:

1. Hasierako onespena ematea Udal Planeko hirigintzako antolamendu xehakatuko determinazioak aldatzeko espedienteari, zehazki lurzoru urbanizaezineko Arauen 10. eta 18. artikulua.

2. Akordio hau argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Foru Komunitatean editatzen diren egunkarietan eta Udaletxeko Iragarki Taulan, espedientea jendaurrean egon dadin hilabete bateko epean.

3. BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA 2019/10/16KO OSOKO BILKURAKO ERABAKIAREN AURKA. UDAL AGENTEAREN OSAGARRIAK.

DEL SUELO NO URBANIZABLE DEL PLAN MUNICIPAL. APROBACIÓN INICIAL.

Tras la presentación del tema por el Alcalde y explicación del procedimiento por el Secretario, se adopta el siguiente acuerdo:

Visto:

- El expediente de modificación de determinaciones de ordenación urbanística pormenorizadas del Plan Municipal, en concreto los artículos 10 y 18 de las Normas del suelo no urbanizable, promovido por el Ayuntamiento de Bera.

- El informe técnico emitido por Nasuvinsa el 12/12/2019.

- El informe jurídico emitido por Secretaría municipal el 17/12/2019.

De conformidad con lo establecido por los artículos 77.3 y 72 del Decreto Foral Legislativo 1/2017, de 26 de julio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo,

por unanimidad (quorum de mayoría absoluta legalmente exigido) SE ACUERDA:

1.- Aprobar inicialmente la modificación de determinaciones de ordenación urbanística pormenorizadas del Plan Municipal, en concreto los artículos 10 y 18 de las Normas del suelo no urbanizable.

2.- Publicar este acuerdo en el Boletín Oficial de Navarra, en prensa editada en la Comunidad Foral de Navarra y en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento, al objeto de que el expediente esté expuesto al público por plazo de 1 mes.

3.- RECURSO DE REPOSICIÓN CONTRA ACUERDO DE PLENO DE 16/10/2019. COMPLEMENTOS AGENTE MUNICIPAL.

Alkateak eta idazkariak gaiaren nondik norakoak azaldu dituzte eta, jarraian, honako erabaki hau hartu da:

Ikusirik:

- Martín Leiza Larralde jarritako berraztertze-errekurtsioa Berako Udalaren Osoko Bilkurak 2019ko urriaren 16an hartutako erabakiaren aurka. Erabaki horretan soldata-osagarriak aitortu zitzaizkion, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

- Errekurtsogileak honako eskubide hau eskatu duela: %45eko berariazko osagarria jasotzeko 2019ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, eta lanpostuaren osagarria, berriz, —%10,35ekoa (gehi dagokion %6ko txanda-plusa)—, 2019ko plantilla organikoaren behin betiko aldaketa NAO n argitaratzen den egunetik aurrera.

- Errekurritutako erabakian transkribatu ziren espedientearen aurrekariak.

- Joseba Compains Silva Letraduak 2019-12-12an emandako txosten juridikoak errekurtsioa ezestea proposatzen duela, errekurritutako erabakia zuzenbidearen arabera delako, zehazki honako arrazoi hauengatik: Nafarroako Poliziei buruzko 23/2018 Foru Legearen Lehen Xedapen Iragankorraren aplikazioa; Udalak ordainsari osagarri berriei ematen dien atzeraeragina, oro har, onuragarria da langilearentzat; “arau-espigueo” izenekoari egin beharreko betoa.

Azaldutakoan oinarriturik eta kontuan izanda Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeko 119. eta 88.6. artikuluek xedatzen dutena, baita aipatutako txosten juridikoaren arrazoiak ere, haren edukiak osatzen baitu erabaki honen arrazoitzea,

aho batez ERABAKITZEN DA:

1. Ezestea Martín Leiza Larralde

Alcalde y Secretario exponen los pormenores del tema y seguidamente se adopta el siguiente acuerdo:

Visto:

- El recurso de reposición interpuesto por Martín Leiza Larralde contra el acuerdo de Pleno del Ayuntamiento de Bera de fecha 16 de octubre de 2019, en el que se le reconocieron complementos salariales con efectos de 1 de enero de 2019.

- Que el recurrente solicita el derecho a *“percibir el complemento específico del 45% con fecha de efectos 1/1/2019 y el complemento de puesto de trabajo del 10,35% (más el 6% de turnicidad que corresponda) desde la fecha de publicación de la modificación definitiva de la plantilla orgánica de 2019 en el BON”*.

- Los antecedentes del expediente transcritos en el acuerdo recurrido.

- El informe jurídico emitido por el Letrado Joseba Compains Silva en fecha 12/12/2019, que propone desestimar el recurso por ser el acuerdo recurrido ajustado a Derecho, en concreto por los siguientes motivos: aplicación de la Disposición Transitoria Primera de la Ley Foral 23/2018, de Policías de Navarra; el efecto retroactivo que el Ayuntamiento otorga a las nuevas retribuciones complementarias es en conjunto beneficioso para el trabajador; el veto al llamado “espigueo” normativo.

En base a lo expuesto, teniendo en cuenta lo establecido por los artículos 119 y 88.6 de la Ley 39/2015, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y las razones del informe jurídico referenciado, cuyo contenido integra la motivación del presente acuerdo,

por unanimidad SE ACUERDA:

1.- Desestimar el recurso de reposición

Berako Udalaren Osoko Bilkurak 2019ko urriaren 16an hartutako erabakiaren aurka jarritako berraztertze-errekurtsoa, azaldutako arrazoiengatik.

2. Erabaki hau jakinaraztea errekurtsogileari, aipatutako txosten juridikoaren kopiarekin batera.

4. 2019KO PLANTILLA ORGANIKOAREN ALDAKETA (UDAL AGENTEAK). ALEGAZIOA EBATZI ETA, HALA BADAGOKIO, BEHIN BETIKO ONETSI.

Alkateak gaia aurkeztu eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, honako erabaki hau hartu da:

Ikusirik:

- 2019ko urriaren 16an Osoko Bilkurak egindako bileran hasiera batez onetsi zuela 2019ko plantilla organikoaren aldaketa, Nafarroako Poliziei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legearen lansari araubidearen eskakizunei egokitzeko.

- Espedientea jendaurrean egon den epealdian Martín Leiza Larralde funtzionarioak alegazio bat aurkeztu duela. Alegazio horretan eskatzen du %45eko berariazko osagarria jasotzea 2019ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, eta lanpostuaren osagarria, berriz, —%10,35ekoa (gehi dagokion %6ko txanda-plusa)—, 2019ko plantilla organikoaren behin betiko aldaketa NAO n argitaratzen den egunetik aurrera.

- Joseba Compains Silva Letraduak 2019-12-12an emandako txosten juridikoak alegazioa ezestea proposatzen duela, erabakia zuzenbidearen arabera delako, zehazki honako arrazoi hauengatik: Nafarroako Poliziei buruzko 23/2018 Foru Legearen Lehen Xedapen Iragankorraren aplikazioa; Udalak ordainsari osagarri berriei ematen dien atzeraeragina, oro har, onuragarria da

interpuesto por Martín Leiza Larralde contra el acuerdo de Pleno del Ayuntamiento de Bera de fecha 16 de octubre de 2019, por los motivos expuestos.

2.- Notificar este acuerdo al recurrente, junto con copia del informe jurídico referenciado.

4.- MODIFICACIÓN DE PLANTILLA ORGÁNICA DE 2019 (AGENTES MUNICIPALES). RESOLUCIÓN DE ALEGACIÓN Y APROBACIÓN DEFINITIVA, EN SU CASO.

Tras la presentación del tema por el Alcalde y explicación del procedimiento por el Secretario, se adopta el siguiente acuerdo:

Visto:

- Que en la sesión que el Pleno del Ayuntamiento celebró el día 16 de octubre de 2019 aprobó inicialmente la modificación de la Plantilla Orgánica vigente, con el fin de adecuar la misma a las exigencias derivadas del nuevo régimen retributivo de la Ley Foral 23/2018, de 19 de noviembre, de las Policías de Navarra.

- Que en el periodo de exposición pública se ha presentado 1 alegación por el funcionario Martín Leiza Larralde, que solicita el derecho a *“percibir el complemento específico del 45% con fecha de efectos 1/1/2019 y el complemento de puesto de trabajo del 10,35% (más el 6% de turnicidad que corresponda) desde la publicación en el BON de la modificación definitiva de la plantilla orgánica de 2019.”*.

- El informe jurídico emitido por el Letrado Joseba Compains Silva en fecha 12/12/2019, que propone desestimar la alegación por ser el acuerdo ajustado a Derecho, en concreto por los siguientes motivos: aplicación de la Disposición Transitoria Primera de la Ley Foral 23/2018, de Policías de Navarra; el efecto retroactivo que el Ayuntamiento otorga a las nuevas

langilearentzat; “arau-espigueo” izenekoari egin beharreko betoa.

Azaldutakoan oinarririk eta Nafarroako Toki Administrazio 6/1990 Foru Legearen 235. artikuluari eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 202. artikuluari jarraikiz, baita aipatutako txosten juridikoaren arrazoiei ere, haren edukiak osatzen baitu erabaki honen arrazoitzea (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeko 88.6. artikulua),

aho batez ERABAKITZEN DA:

1. Martín Leiza Larralde aurkeztutako alegazioa ez onartzea aipatutako arrazoiengatik.

2. Behin betiko onespena ematea jarraian zehazten den Udaleko Langileen 2019ko Plantilla Organikoaren aldaketari, 2019ko urtarrilaren 1eko efektuekin:

Lanpostua: Udal agentea.
Kopurua: 2.
Araubide juridikoa: Funtzionarioa.
Maila: C.
Berariazko osagarria, %45.
Lanpostuaren osagarria, %16,35.

Sarbidea: Oposaketa.
Laneko egoera: 1 jardunean/ 1 hutsik.

Euskara maila: C1.

Udaleko langilego finkoaren izenen zerrendaren aldaketa Martín Leiza Larralderi dagokionean:

Araubide juridikoa: Funtzionarioa.
Jaioteguna: 1966-05-23.
Kargua: Udal agentea.
Egoera administratiboa: jarduenan.
Aitortutako zerbitzuen data: 1999-11-27.

Maila: C.

retribuciones complementarias es en conjunto beneficioso para el trabajador; el veto al llamado “espigueo” normativo.

En base a lo expuesto y de conformidad con lo establecido por el artículo 235 de la Ley Foral 6/1990, de la Administración Local de Navarra y artículo 202 de la Ley Foral 2/1995 de Haciendas Locales de Navarra, y las razones del informe jurídico referenciado, cuyo contenido integra la motivación del presente acuerdo (artículo 88.6 de la Ley 39/2015, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas),

por unanimidad SE ACUERDA:

1.- Desestimar la alegación presentada por Martín Leiza Larralde por los motivos expuestos.

2.- Aprobar definitivamente la modificación de la Plantilla Orgánica de 2019 del personal del Ayuntamiento, con efectos de 1 de enero de 2019, en el siguiente sentido:

Puesto: Agente Municipal.

Número: 2.

Régimen jurídico: Funcionario/a.

Nivel: C.

Complemento específico, 45%.

Complemento de Puesto de Trabajo, 16,35%.

Forma de provisión: Oposición.

Condiciones de ejercicio: 1 activo/ 1 vacante.

Nivel de euskera: C1.

Modificación de la relación nominal de personal fijo del Ayuntamiento en lo que respecta a Martín Leiza Larralde:

Régimen jurídico: Funcionario.

Fecha nacimiento: 23-05-1966.

Cargo: Agente Municipal.

Situación administrativa: Activo.

Fecha servicios reconocidos: 27-11-1999.

Nivel: C.

Grado: 3.

Gradua: 3.
Berariazko osagarria, %45.
Lanpostuaren osagarria, %16,35.

3. Onartutako aldaketa argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udal iragarki taulan.

4. Erabaki hau jakinaraztea alegazio-egileari, aipatutako txosten juridikoaren kopiarekin batera.

5. BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEAREN TXOSTENA PLANTILLA ORGANIKOETAKO LANPOSTUEN HIZKUNTZA ESKAKIZUNEI BURUZ.

Alkateak eta idazkariak gaiaren nondik norakoak azaldu dituzte eta, jarraian, honako erabaki hau hartu da:

Ikusirik:

- Bortziritako Euskara Mankomunitatearen txostena, plantilla organikoetako lanpostuen hizkuntza eskakizunei buruzkoa, 2019ko irailekoa.

- Udalaren Osoko Bilkurak 2019ko urriaren 30ean egindako batzarrean, Udaleko eta Musika Eskolako Langileen 2020rako Plantilla Organikoari hasierako onarpena eman ziola.

- Onartutako Plantilla, oro har, adierazitako txostenarekin bat datorrela.

Gaia eztabaidatu ondoren,

aho batez ERABAKITZEN DA:

1. Bortziritako Euskara Mankomunitatearen txostena onartzea.

2. Udaleko eta Musika Eskolako langileen 2020rako Plantilla Organikoa mantentzea onartu zen moduan.

Complemento específico, 45%.
Complemento de Puesto de Trabajo, 16,35%,

3.- Publicar la modificación aprobada en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios municipal.

4.- Notificar este acuerdo al alegante, con copia del informe jurídico referenciado.

5.- INFORME DE LA MANCOMUNIDAD DE EUSKERA DE BORTZIRIAK SOBRE LOS PERFILES LINGÜÍSTICOS DE LOS PUESTOS DE TRABAJO DE LAS PLANTILLAS ORGÁNICAS.

Alcalde y Secretario exponen los pormenores del tema y seguidamente se adopta el siguiente acuerdo:

Visto:

- El informe de la Mancomunidad de Euskera de Bortziriak sobre los perfiles lingüísticos de los puestos de trabajo de las plantillas orgánicas, de septiembre de 2019.

- Que en la sesión que el Pleno del Ayuntamiento celebró el día 30 de octubre de 2019 aprobó inicialmente la Plantilla Orgánica del Personal del Ayuntamiento y Escuela de Música para el año 2020.

- Que la Plantilla aprobada se ajusta, en general, al informe señalado.

Debatido el asunto,

por unanimidad SE ACUERDA:

1.- Aprobar el informe de la Mancomunidad de Euskera de Bortziriak.

2.- Mantener la Plantilla Orgánica del Personal del Ayuntamiento y Escuela de Música para el año 2020 en los términos en los que se aprobó.

6. BANDOAK ETA ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Honako bando eta Alkatzaren ebazpen hauen jakinaren gainean geratu dira:

- Bandoak: B29/2019 Bandotik B32/2019 Bandora bitarte.

M. Aranzazu Zubieta Ochoteco bilerara sartu egin da.

- Ebazpenak: 315/2019 Ebazpenetik (2019/11/19) 332/2019 Ebazpenera bitarte (2019/12/13).

7. ESKAERAK ETA GALDERAK. BESTE UDAL ORGANOEEN KONTROLA.

Ez dira izan.

Beste aztergairik izan gabe, 20:10ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

O.E. ALKATEA/ VºBº EL ALCALDE,
Aitor Elexpuru Egaña.

6.- BANDOS Y RESOLUCIONES DE ALCALDÍA.

Quedan enteradas y enterados de los siguientes bandos y resoluciones de Alcaldía:

- Bandos: desde el Bando B29/2019 hasta el nº B32/2019.

Mª Aranzazu Zubieta Ochoteco se incorpora a la sesión.

- Resoluciones: desde la Resolución 315/2019 (19/11/2019) hasta la nº 332/2019 (13/12/2019).

7.- RUEGOS Y PREGUNTAS. CONTROL DE LOS DEMÁS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN.

No se formulan.

No habiendo más asuntos que tratar, el Alcalde levanta la sesión a las 20:10 horas, lo que yo, el Secretario, certifico.

IDAZKARIA/ EL SECRETARIO,
Miguel J. Belarra Tellechea.